

13. Hilabeteko Iruzkina 2009ko Martxo-Apirila




Presio fiskala Europar Batasunean

- **Europar Batasunean presio fiskala BPGren % 39,8an dago**

Eurostatek berriki "Taxation trends in the European Union" txostenaren 2009ko edizioa argitaratu du, eta bertan, Europar Batasunaren eta bere estatu kideen zerga-arloaren bilakaeraren azterketa sakona jasotzen da.

Txostenak jasotzen duenez, 2007an Batasuneko karga fiskal osoa (zerga eta kotizazio sozial efektiboak) BPGaren % 39,7a zen (27 estatu kideen BPGaren batez besteko haztatu gisa).

Presio fiskal hau bestelako gune garatu batzuetakoa baino handiagoa da; esaterako, Estatu Batuak (% 28,3), Japonia (% 27,9), Australia (% 30,6), Kanada (% 33,3), Korea (% 28,7) edo Mexiko (% 20,5); hala nola, estatu kide ez diren Suitza (% 29,7) edo Turkia (% 23,7) bezalako Europako herrialdeak. ELGEren "Revenue Statistics" argitalpenak jasotzen duenaren arabera, Norvegia (% 43,4) eta Islandia (% 41,4) dira salbuespenak.




13. Hilabeteko Iruzkina 2009ko Martxo-Apirila



- Estatu kideen artean desberdintasun handiak daude: Danimarka (% 48,7) eta Errumania (% 29,4)

Eragin fiskala kontuan izanda, Europar Batasuneko eremuan estatuen arteko ondorengo sailkapena egin daiteke:

- Presio fiskal altua: % 41,7 baino handiagoa (EB-27-ren batez bestekoa baino 2 edo portzentaje-puntu gehiago)
- Zazpi estatu daude talde honetan: Danimarka (% 48,7), Suedia (% 48,3), Belgika (% 44), Frantzia (% 43,3), Italia (% 43,3), Finlandia (% 43) eta Austria (% 42,1).
- Presio fiskal ertaina: % 37,7 eta % 41,6 artean (batez bestekotik 2 portzentaje-puntu +/-)
- Bost herrialde daude: Zipre, Hungaria, Alemania, Holanda eta Eslovenia.
- Presio fiskal ertaina-baxua: % 34,7 eta % 37,6 artean (2 eta 5 portzentaje-puntu artekoa baino beherago batez bestekotik)
- Zazpi herrialde: Espainia, Txekiar Errepublika, Portugal, Luxenburgo, Erresuma Batua, Polonia eta Malta.
- Presio fiskal baxua: % 34,7 baino baxuagoa (5 portzentaje-puntu baino gehiago beherago batez bestekotik)
- Gainerako zortzi herrialdeak: Bulgaria, Estonia, Grezia, Irlanda, Letonia, Lituania, Eslovakia eta Errumania.



13. Hilabeteko Iruzkina
2009ko Martxo-Apirila



- Datuak:
Estatu kideen presio fiskala 2000, 2006 eta 2007 urteetan

	Presio fiskala (BPGaren %)		
	2000	2006	2007
EB-27	40.6	39.7	39.8
Eurogunea	41.2	40.3	40.4
Belgika	45.2	44.5	44.0
Bulgaria	32.5	33.2	34.2
Txekiar Errepublika	33.8	36.7	36.9
Danimarka	49.4	49.6	48.7
Alemania	41.9	39.2	39.5
Estonia	31.3	31.3	33.1
Irlanda	31.6	32.1	31.2
Grezia	34.6	31.3	32.1
España	33.9	36.5	37.1
Frantzia	44.1	43.9	43.3
Italia	41.8	42.1	43.3
Txipre	30.0	36.5	41.6
Letonia	29.5	30.4	30.5
Lituania	30.1	29.4	29.9
Luxenburgo	39.1	35.8	36.7
Hungaria	38.5	37.2	39.8
Malta	28.2	33.7	34.7
Holanda	39.9	39.1	38.9
Austria	43.2	41.7	42.1
Polonia	32.6	33.8	34.8
Portugal	34.3	35.9	36.8
Errumania	30.4	28.6	29.4
Eslovenia	37.5	38.4	38.2
Eslovakia	34.1	29.4	29.4
Finlandia	47.2	43.5	43.0
Suedia	51.8	49.0	48.3
Erresuma Batua	36.7	36.9	36.3

13. Hilabeteko Iruzkina 2009ko Martxo-Apirila




• Azken urteotako presio fiskalaren goranzko joera 2008an eten egiten da

EB-27 osoan presio fiskala murriztu egin zen 1999-2004 aldian, BPGaren % 40,8tik % 38,9ra murriztuz.

1,9 puntuko txikiagotze hau zati batean zuzendu zen 2004-2007 aldian. Hirurteko horretan 0,9 portzentaje-puntu egin zuen gora, % 39,7ra iritsi arte.

Europako Batzordearen balioespen eta aurreikuspenek adierazten dutenez, 2008tik aurrera berriz ere presio fiskalaren murrizte-aldia hasi zen, hurrengo urteetan barrena luzatuko zena.



• Kotizazio sozialek BPGaren % 12,4ean dute eragina

Kotizazio sozialak alde batera utzita, presio fiskala BPGaren % 27,4ra iritsi zen 2007an; beraz, kotizazio horiei BPGaren % 12,4ko eragina dagokie.

Kotizazio sozialik gabeko presio fiskalaren eraginak maila altuena Danimarkan (% 47,7, kotizazio sozialen % 1a gehitzen zaio soilik), Suedian (kotizazio sozialen % 36,1 eta % 12,2) eta Finlandian (% 31,1 eta % 11,9, hurrenez hurren) izango du.

Presio fiskalaren tasa altua duten beste herrialde batzuetan, kotizazio sozialen eraginak Batasuneko batez bestekoa gainditzen du. Hori gertatzen da Frantzian (% 27 eta % 16,3, hurrenez hurren) eta Italian (% 30,2 eta % 13,1).

13. Hilabeteko Iruzkina 2009ko Martxo-Apirila




• Diru-sarrera fiskalen banaketa

EB-27 osoan, 2007ko diru-sarrera fiskalen % 48,7a lanaren gaineko ezarpenari dagokio, % 27,8 kontsumoaren gainekoari eta % 23,5 kapitalaren gainekoari.

Lanaren gaineko ezarpenaren partaidetza handiena duten hiru herrialdeak Suedia (% 58,6), Austria (% 55,2) eta Alemania (% 54,6) dira. Kontrako muturrean (gutxieneko partaidetzatik gehienera joanda), Zipre, Malta eta Bulgaria daude.

Kontsumoaren gaineko diru-sarrera fiskalen partaidetza guztizko diru-sarreretan altuagoa da Bulgarian (% 53,7), Estonian (% 41,3) eta Errumanian (% 40,4). Eta txikiena Italian, Belgikan eta Frantzian.

Azkenik, kapitalaren gaineko ezarpena Zipren (% 34,2), Maltaan (% 32,8) eta Erresuma Batuan (% 31,5) ematen du gehien. Eta gutxien Estonian, Lituanian eta Letonian.



13. Hilabeteko Iruzkina 2009ko Martxo-Apirila



• Ezarpenaren tasa inplizituak

Aipatutako argitalpenean, lanaren, kontsumoaren eta kapitalaren gaineko ezarpen inplizituaren tasak kalkulatu ditu Eurostatek, hau da, zergazko oinarri potentzialarekiko metatutako karga fiskala (%-etan).

Kalkulu honen arabera, lanaren gaineko ezarpen inplizituaren tasa (zerga eta kotizazio sozialak laneko guztizkoen kostuekiko) % 34,4 da EB-27an. Zazpi herrialdetan tasa hau % 41 baino handiagoa da: Italia, Suedia, Belgika, Finlandia, Txekiar Errepublika, Frantzia eta Hungaria.

Kontsumoaren gaineko batez besteko tasa inplizitua % 22,2an balioesten da eta sei herrialdetan % 26 baino handiagoa da: Danimarka, Suedia, Luxenburgo, Holanda, Finlandia. Bestalde, kapitalaren gaineko batez besteko ezarpen inplizitua % 28,7 da, estatu kideen artean desberdintasun handiak izanik. Ratio handienak Zipre, Danimarka, Erresuma Batua eta Espainian ditu.

	Ezarpen inplizituaren tasa		
	Lanaren gainekoa (%)	Kontsumoaren gainekoa (%)	Kapitalaren gainekoa (%)
EB-27	34.4	22.2	28.7
Eurogunea	34.3	21.5	29.8
Belgika	42.3	22.0	31.1
Bulgaria	29.9	25.4	:
Txekiar Errepublika	41.4	21.4	25.6
Danimarka	37.0	33.7	44.9
Alemania	39.0	19.8	24.4
Estonia	33.8	24.4	10.3
Irlanda	25.7	25.6	18.5
Grezia	35.5	15.4	:
España	31.6	15.9	42.4
Frantzia	41.3	19.5	40.7
Italia	44.0	17.1	36.2
Txipre	24.0	21.4	50.5
Letonia	31.0	19.6	14.6
Lituania	32.3	17.9	12.1
Luxenburgo	31.2	26.9	:
Hungaria	41.2	27.1	:
Malta	20.1	20.3	:
Holanda	34.3	26.8	16.4
Austria	41.0	21.6	26.1
Polonia	35.0	21.4	:
Portugal	30.0	20.3	34.0
Errumania	30.1	18.1	:
Eslovenia	36.9	24.1	23.1
Eslovakia	30.9	20.6	17.5
Finlandia	41.4	26.5	26.7
Suedia	43.1	27.8	35.9
Erresuma Batua	26.1	18.4	42.7

13. Hilabeteko Iruzkina
2009ko Martxo-Apirila



• Informazio gehiago

http://ec.europa.eu/taxation_customs/taxation/gen_info/economic_analysis/tax_structures/index_en.htm

